



20. zEnbakia
ondo bukatu eta
hobeto hasi!

Ezertan hasi aurretik, zuen haurrak irakurzaletzeko, aholku txikitxo bat adierazi nahi genuke. Ondoren, zuen eskuetan egongo da ideia horren garapena:

Kontuan izan, irakurketak, barruko gogo eta irrikak bultzaturik emango den zerbait izan beharko duela beti, eta beraz, irakurtzera derrigortzen hasten garen unetik, gure helburuak guztiz aldatzen ari garela.

Emili Teixidorrek dioen lez: *“Irakurtzeko nahia kutsatzea beste edozein nahi kutsatzea bezalako da: hori lortzeko modu bakarra, ezarpenik gabe egiten da, kontaktuaren bidez eta imitazio eta lilurapenaren bidez”.*

Hortaz, gain, Pennacen aburuz irakurketa hautazkoa denean, alegia, aginduetatik aske kokatzen den momentuan, irakurketarako gerturatze-prozesu bat ematen da. Izan ere, aginduz egiten dena aspermen eta arbuira zuzendurik baitago.

Horretarako, egin beharreko lana liburua eskaintzea edo zirikatzea izango da; izan ere, askatasun hori, irakurleak irakurtzen ari diren historia horren jabe sentitzeko oinarritzko premisa izango baita. Beraz, izan kontu!

IRRIA 20: IRAKURKETA GIDA

1- AZALA

Hilabete honetako aldizkaria irakurtzen hasi aurretik, azalaren hamar bat kopia egin eta utzi kopia horiek haurra aritzen den etxeko lekuetan: logelan, komunean, sukaldean... baina zertxobait ezkutaturik, e! Haurrak kopiak ikusten dituenean, adierazi beharko diozu guztiak aurkitu arte ez duela aldizkaria hartzeko aukerarik izango; beraz, denak aurkitu beharko dituela! Altxorraren bila arituko da gure haurra! Kasu honetan, altxorra gure aldizkaria izango da!



20. zEnbaki
ondo bukatu eta
hobeto hasi!

Hamar orriak aurkitzen dituenean, aldizkaria eskainiko diozu, baina modu berezian! Oparia balitz bezala eman beharko diozu! Hau da, paper polit askoan bilduta! Horrela, haurraren atentzioa eta ilusioa areagotzea lortuko duzu! Eta aldizkaria arakatzeko irrika handiagoa erakutsiko du, segurur!

Behin aldizkaria haurraren esku utzirik, galde iezaiozu ea zer eta nor ikusten duen azalean. Zer esan nahi ote du goian agertzen den esaldi horrek?: "Ondo bukatu eta hobeto hasi?". Galdetu ea zeri buruz ari ote den! Eta utzi lasai berari erantzuten eta azala zertxobait arakatzen! Ea zer bururatzen zaion!

2- EGUNERO JANTZITA DARAMAGUN ILUSIOA

Atal honetan ere geldialdi bat egin dezazula eskatzen dizugu. Azal iezaiozu aurrean duzunari zer adierazi nahi duen hor agertzen denak, zure laguntzarik gabe nekez ulertuko du eta!

3- AURKIBIDEA

Aurkibideek ere ematen dute ba jokoa zerbait interesgarria eta polita egiteko irakurketarekin eta jolasarekin! Hona hemen gure proposamena:

Bion artean irakurri beharko duzue aurkibidea! Txandaka irakurri beharko dituzue agertzen zaizkizuen atalak, bai? Baina beste berezitasun bat ere izango du jarduera honek, modu berezian irakurri beharko duzue eta: zerbait aurkezten ariko bazinete bezala egin beharko duzue! Hau da, telebista programetako aurkezleek protagonistak aurkezterakoan erabiltzen duten intonazioaz baliatu beharko zarete atalak irakurtzeko! Adibidez:

"Pupuuuu etaaaa loreeeeeee!!!! Opariaaaaak testuaa: Uxueeeee Alberdiuuuuu / Marrazkiaaaaaak: Juleeen Tokerooooo, Cesaaar Gonzaleeeeeez"

Ados? Seguru gaude ezin hobeto pasatuko duzuela!



20. zEnbaki
ondo bukatu eta
hobeto hasi!

Aurkibidearen ondoan dagoen testutxo, aldiz, zuk zeuk irakurri beharko diozu haurrari! Tonua zaindu beharko duzu honetan ere! Intonazio goxo eta lasai irakurri! Seguru liluraturik utziko duzula txikia!

4- PUPU ETA LORE

Badakizu, askotan, kantuz irakurtzen ditugula komikiak. Batez ere, olerkiak ageri direnean. Izan ere, olerkiak kantuz ematea erakargarria da oso! Beraz, oraingoan ere kantuz egin nahi baduzu... Badakizu: haurrarentzat erakargarria den musika edo melodia polit bat aukeratu, aldizkaria bion artean jarri eta ekin irakurtzeari/kantatzeari!

Gogoratu: umorez eta ilusioz egiten den guztiak emaitza hobeak izaten ditu! Beraz, har ezazu jarrera hori, eta ikusiko duzu zer gertatuko den: haurrak imitatu egingo du zure jarrera! Eta ba ote da haurra pozik eta ilusioz beterik ikustea bezain gauza ederrik?

5- PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Iritsi da negua eta beronekin batera elurra!! Galdetu haurrari ea berak bakarrik irakurri nahi duen edo elkarrekin irakurtzea nahi duen. Irakurketaren ondoren jolas bat egitea proposatzen dugu. ADI!

Ondoren, ematen ditugun hitz hauekin Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek izandako abenturari jarraipena eman behar diozue.

Binaka, bakoitzak berea... nahi duzuen bezala.

Amaieran, konta iezaiozue elkarri hitz horietatik abiatuta sortu duzuen istorioa!
ANIMO!

HITZAK: *falta, gainean, iletsu, negua, nekatuta, entzun*



20. ZENBakia
ONdo buKatu Eta
HObEtO hasi!

6- KLABELINE

Lagun iezaiozu aurrean duzunari komikia irakurtzen. Bakarrik irakurri nahi badu, utz iezaiozu. Irakurri ondoren, hausnartu egingo duzue komikian agertzen diren zenbait esaldiren eta guk proposatutako galderen inguruan.

GALDERAK: Zer da baserri bat? Eta nekazari bat?

ESALDIAK: "Asko mimatuz gero begira zein emankorra den lurra"; "Elikagai freskoak eta garaian garaikoak dira osasuntsuenak"; "Guk natura zaintzen badugu, naturak gure osasuna zaintzen du."

7- ZENBATAK

Atal hau irakurtzen hasi aurretik, haurrari pista batzuk eskainiko dizkiozu irakurriko duen horren inguruan! Pista edo informazio hori eskaintzearen helburu hauxe da: haurrak irrika handiagoz heltzea komikiari. Ea lortzen duzun! Honako hauek izango dira pistak:

- ❖ Marizortzi eta Zifro (haren aitaren) inguruan dihardu istorioak
- ❖ Zifro beti lanpeturik egon ohi da, ez du ezertarako denborarik izaten
- ❖ Marizortzik aitarekin jolastu nahi du, baina ...



20. zEnbakia
ondo bukatu eta
hobeto hasi!

8- OLIBATXO

Irakurritakoa errealitatearekin lotzen dugunean, funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna agertzen dira, eta horrela, irakurritakoa errazago barneratzen dugu.

Gure proposamena honako hau da:

1-Irakurketa egin ondoren, komikian agertzen den ibilbidea egitea:

- a. Otordu bat prestatu ondoren zartaginean gelditu zaizun oliorekin, egin ezazu komikian agertzen dena: bota poto batera, eta eraman potoa olioarentzako zakarrontzi berezira edo zuen herrian olio erabilia uzten den lekura.
- b. Ondoren, erakutsi bideo bidez olio nola egiten duten: ziur Interneten aurkituko duzula baten bat!
- c. Hori egin eta gero, adieraz iezaiozu bideo baten bitartez olio birziklatua zertarako erabiltzen duten.

9- IRRIEN LAGUNAK KLUBAREN EGUTEGIA

A zer egutegi polita eskaini diguten gure lagunek, ezta? Ohartuko zinen 2013koa dela! Beraz, oraindik ez digu askorako balio! Guk honako hau proposatzen dizugu:

Moztu egutegia aldizkaritik! Gorde karpeta sekretu batean, baina, kontuz!, tolestu gabe, e! Urtarrilaren 1ean, ireki karpeta, hartu egutegia kontu handiz eta itsatsi etxeko lekurik politenean! Utzi haurrari lekua aukeratzen!

10- MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Haurrak irakurtzeko utziko dugu atal hau! Haurrak aukera dezala nola eta norekin irakurri nahi duen, bai? Gogoratu haurrari askatasuna uztea autonomiarako bide dela! Beraz, utzi aske izaten eta irakur dezala nahi duen erara!



20. zEnbaki
ondo bukatu eta
hobeto hasi!

Bestalde, irakurri ostean, hausnar ezazue irakurri duen (duzuen) horren inguruan, gaiak asko ematen du eta! Zure esku uzten ditugu galderak eta haurra hausnarketara bideratuko duten adierazpenak! Landu zure sortzailetasuna!

11- LAGUN

Gabonak ate joka ditugu. Oraingo honetan, irakurketa partekatua egitea proposatzen dugu, ahal izanez gero bi pertsona baino gehiagorekin.

Jar zaitezte biribilean eserita eta irakur dezala heldu batek ipuina. Kontuan izan giro goxoak lagundu egiten duela irakurketaz gozatzen!

Amaitzean, honako galdera hauek parteka ditzakezue:

1-Zer gertatu zaio Laguni?

2- Zuen ustez, zer gertatuko litzateke Olentzero opariak jartzen ikusiko bagenu gauean? Eta berak gu esna ikusiz gero?

12- MARIKALANBRE

Marikalanbreren atalera iristean, lasai-lasai irakurriko dugu, haurrak nahi duen bezala: berak bakarrik edo elkarrekin. Ondoren, honako galdera hauen inguruan hitz egitea proposatzen dugu:

- *Sua goxoa al da? Arriskutsua al da sua? Zertarako balio du suak?*



20. zEnbaki
ondo bukatu eta
hobeto hasi!

13- FILOSOFO TXIKIAK

Gure lagun filosofoak beti filosofatzen, ezta? Hori ere egin behar da noizean behin!
Atal hau irakurtzeko, honako hau da gure proposamena:

Atal hau bere lagunekin irakur dezala nahi dugu, eta guk adieraziko diogu polita izan daitekeela atal hau bere lagunekin irakurtzea! Lagun artean filosofatuko duela oraingoan!

Lagunekin filosofatzeko, denen artean irakurri beharko dute gure filosofoen atala, eta, ondoren, bertan ageri diren galderei ozenki erantzun beharko dietel!

Zu behatzaile gisa jardungo zara! Ea zer erantzuten duten!

14- MARTINBERTSO

Martinbertsoren atala irakurtzeko, zuk hartuko duzu protagonismoa oraingoan! Utzi haurrari lasai egoteko aukera, eta irakur iezaiozu zuk komikia! Zure esku uzten dugu haurraren arretari eutsiko dion estrategia eratzea! Ea zer bururatzen zaizun!

Seguru gaude orain arte eskaini dizkizugun teknika guztietatik zerbait ikasi duzula! Beraz, erabili horietatik gehien maite duzuna, eta animo!

15- ANE PIRATA ETA PATAKON

Iritsi dira, azkenean, piratak gure lurraldera, eta San Anton lurraldean jarri dute bandera. Ahal izanez gero, antolatu txango bat San Anton mendira, eta kontatu ezazue ipuina han bertan! ANIMATU! HAURREK ETA ZUK ASKO GOZATUKO DUZUE!



20. zEnbakiA
onDo buKatu EtA
HoBEto HaSi!

16- IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Irakur ezazue zer dioen Irrien Lagunak Klubak Durangoko Azokaren inguruan.
Ondoren, honako jolas hau egin dezazuela proposatzen dugu:

- 1-Bil zaitetze lagun bi baino gehiago.
- 2- Hamabost segundotan "o" letra gehien aurkitzea da helburua.
- 3- Jar ezazu sari bat irabazlearentzat.